



Josune Labandibar Fernández  
San Vicente de Paul Ikastetxea (Irun)  
2. Saria DBH (Rocker@s)  
**Argazkiak: Sara Santos**

## **“Saria lortu zutenean, ikasleak txundituta geratu ziren eta datozen urteetan parte hartzeko gogoarekin”**

Josune Labandibar Fernández DBH kategorian bigarren saria lortu duen Irungo San Vicente de Paul Ikastetxeko taldearen arduraduna da; *“Kosmodisean parte hartu izanaren esperientzia oso positiboa izan da. Gainera, oso aberasgarria iruditu zait, bai ikasleentzat bai eta irakasleentzat ere.”*

Josuneren iritziz, ikasleei interesgarriena iruditu zaiena, dudarik gabe, Kurasaaleko ekitaldia izan da. *“Harrituta geratu ziren bertan ikusi zutenarekin. Halaber, lanak garatzeko ezagutu eta erabili dituzten programak aipatzekoak dira haien gustukoak izan baitira.”*

San Vicente de Paul Ikastetxeko irakasleak adierazi duenez, bere ikasleek, irabazle zirela entzun zutenean, paregabeko poza azaldu zuten. *“Txundituta geratu ziren, baita hurrengo urteetan parte hartzeko gogoarekin ere.”*

- Zure ustez, ikasleentzako zein balio positibo eskura daitezke Kosmodisean parte hartuz?
- *Balio positiboak asko direla esango nuke. Alde batetik, proiektu honen bidez talde-lana bultzatzen da. Horrek, ikasleak elkarren artean ezagutzeko, eztabaidatzeko, iritzia emateko... balio du. Bestalde, teknologia berrien ezagupena ere aipatzekoa da. Askok gustatu zaizkie erabilitako programak. Eta azkenik, linguistikoki ere, B eredia izanik, aberastasun handia lortzen dute honelako proiektuen bidez, baita motibazioa ere.*



- Zein da 2007-2008 Kosmodiseatik azpimarratuko zenukeen gauzarik onena? Zein alderdi hobetu beharko lirateke, zure ustez?
- *2006-2007ko edizioarekin alderatuz, lanen arteko epeak luzeagoak izan direla, batetik. Eta aurreko urteetako esperientzia, bestetik. Alderdiak hobetzeko dagokion atalari, ikasleek egindako lanak haien artean puntuatu ordez, nire uste apalean, Kosmodiseak baloratu beharko lituzke aspektu guztiak kontuan hartzeko: kalitatea, hizkuntza, aurkezpena...*
- Kosmodiseako datorren edizioan parte hartuko duzu?
- *Niregatik bai eta oso gustura gainera, interesgarria eta dibertigarria iruditzen baitzait.*